

# Kultur agenda

Otsaila 15 ostirala  
Otsaila 24 igandea



"Europa" filma euskaraz

Hilaren 20an, asteazkena, Lars Von Trier zuzendararen "Europa" filma euskaraz azp titulaturik ikusi ahal izango dugu Antzoki Zaharrean. Pelikula Nosferatu programazioan eskainiko da eta gerra ondoko Alemanian girotuta dago: jatorri alemaniarreko iparramerikar batek Alemaniara itzuli nahi du gerra ondoren laguntzeko. Jean-Marc Barr, Barbara Sukowa eta Udo Kier dira aktore nagusiak. Filma jatorrizko hizkuntza bertsoan emango da, baina euskaraz azp titulaturik, esan bezala. Emanaldia 20.15etan hasiko da.

## Antonia San Juanen emakumeak



Hilaren 17ra bitartean, Antonia San Juan aktorearen "Otras mujeres" izeneko komedia satirikoa ikus dezakegu Antzoki Zaharrean. Lan honetan, San Juanek Federico Garcia Lorca, Felix Sabroso eta Enrique Gallegok idatzitako monologo bana antzetzuko du. "Otras mujeres" satiriaz beteriko komedia dugu.



## Desoreka eta Lau Itzal

Lau Itzal eta Desoreka taldeek kontzertua emango dute Altzako Casares kultur etxean larunbatean, hilak 16. Lau Itzal-eko kideek ia zeleratutako "Denek dakitte" diskoaren hamabi abestiak eskainiko dituzte. Emanaldia 22.00etan hasiko da.

## Senegaleko doinuak Kurasaalean

Afrikako musika gertutik ezagutzeko aukera izango dugu asteazkenean, hilak 20. Izan ere, Ismael Lo-k gidatutako zazpikoteak kontzertua emango du Kurasaaleko ganbera aretoan. 1956an Nigerian jaiotako musikariak Senegaleko popa eta Mandinga eta Peul herrien doinu tradizionalak uztartzen ditu. Ismael Lo-ren abestiak arrazismoaz, adiskidetasunaz eta Afrikako gizartearen arazo-eraz mintzatu ohi dira. Emanaldia 20.00etan hasiko da.

